

F

Arte Garaikideko Hiztegia

Fallenbild (kasualitatezko koadroa)


Lehenengo aldiz Daniel Spoerri errealista berriak praktikatutako teknika bat da: plantxa edo base baten gainean aurreko beste prozesu batean, adibidez bazkari batean, geratutako hondarrak erretxin sintetikoarekin kolatzen zituen, koadro bezala hartuz handik ateratako erliebea.

Fallenbild hori dokumentu kon jeltatu bihurtzen da honela, eta errealitatean itxia geratutako prozesu jakin baten orimenezko pieza.

Fauvismoa

1905ean, Parisko «Udazken-saloi» ospetsuaren aitzekiz eta Henri Matisse lider zela, pintore-talde bat osatu zen independenteizenak hartuz, Gauguin, Cézanne, Toulouse-Lautrec, Renoir, Manet eta Bonnard-en kontraposizioan. Artista horiei fauves izena eman zitzaizen Louis Vauxcelles kritikari halaxe ateratako espresio baten ondorioz, salbajeen (piztien) koadroekin konparatu baitzituen independenteen lanak. Fauvismoaren ordezkari nagusienak -arte honen printzipioak formulatu zituen Matisserekin batera-, Derain, De Vlaminck, Marquet, Friesz, Dufy, Braque, Rouault eta Kees van Dongen holandesa dira. Inpresionisten eta neoinpresionisten koloreari buruzko teoriaren ezagutzak erabili zituen fauvismoak, eta alaitasun kromatikoko handiko kolorismo hori espresionismoko aurreratuenen, van Gogh eta Gauguinen, sentimenintentsitatearekin uztartu zuen. Fauveen oinarritzko gaietan, beren marina eta ibai-paisaje paketsu, beren apunte, erretratu eta bodegoietan, eredu inpresionisten inspirazio nabarmena ikusten da, eta Rouaulten obra goibelari, berriz, Munch eskandinaviarraren hasiberritako espresionismoarekin ikusten zaio ahaidetasun handiagoa. Pintura fauvearen funtsezko baliabideen artean nagusia, espresionismo alemanarena bezalaxe, kolore puru kementsua da, kontraste-efektu ustegabekoekin nabarmenduz egiten dena, batere modulatu gabe eta zuzeneko pintzelada gogor bidez formulatzen dena, artistaren emozio bapatekoa eta subjektiboa plasmatu nahian.

Espazioa ere kolorearekin eraikitzen da erabat, pintura inpresionistak ez bezala, ilusiozko efektuak utzi eta guztiz emozioa espresatzen saiatzen baita. Askatasun-nahi indibidual honen eta grinaldi sutuaren, sentsualismo dinamiko honen errepresentazioan, zuzen-zuzeneko paralelismoa erakusten du espresionismo alemanarekin, bereziki *Die Brucke*ko pintoreekin. 1907tik aurrera, desegiten hasi zen fauveen taldea; ordurako kimutzen ari zen kubismoaren onetan desagertu zen gero, joera ere horretarako joera erakutsi baitzuten laster asko Braquek eta Derainek batez ere.



Catálogo que la Bienal de Venecia de 1990 editó sobre Fluxus.

Fluxus

Ekintzako artearen barruan *happening*-aren paralelo mugimendu bat errepresentatzen du honek, eta dada espiritua- ren berritzeko ekinaldia erakusten du nazioarte-mailan. Musika, antzerkia eta arte plastikoak konbinatzen ditu baliabide bezala, eta ezabatu egiten ditu arte-azalpen desberdinak banantzen dituzten he- simugak. John Cage eta Nam June Paik konpositore abangoardistak egin zituzten hasierako *fluxus* ekintzak, eta azkar za- baldu ziren gero kontinente guztira. Hap- pening-aren kasuan bezala, arte-hiriburu desberdin guztietan eratu ziren fluxus taldeak; Yves Kleinen inguruan Parisen, Allan Kaprow, Claes Oldenburg, Jim Dine, Dick Higgins eta Robert Rauschenberg-

eren inguruan New Yorken, Wolf Volstell, Bazon Brock eta Joseph Beuysen ingu- ruan Alemanian, eta Murakami, Tanaka eta Kanayamarekin Japonian; errepresen- tazio antolatu handitan biltzen dira beti talde hauek. *Fluxus* mugimenduak 1958 eta 1963ko urte bitartean harrapatu zuen bere gailurra eta eragin handia izan zuen antzerki, ballet eta arte plastikoaren mun- duan joera berriak garatzen, bereziki arte plastioetan, arte prozesuala deitutakoare- kin; izan ere *fluxusak*, *happeningak* beza- la, alde batera uzten baititu ekintza baten egituraketa planifikatu guztiak, eta ger- taera inprobisatu eta pasadizoko baten bibentzia kontzentratuta bakarrik muga- tzen da, eta hori bitarteko baliabide be- zala erabiliz, publikoaren aurrean aurkez- ten baitu beronen bizipen sentsoriale- rako gaitasuna pizkortzeko asmo delibe- ratuarekin.

Formalismoa

Artean orokorki erabiltzen den deitura jeneriko bat da, eta kategoria formalek edukinarekin konparatuta hartzen duten exagerazioa adierazteko erabiltzen da.

Fotodifuminatua

*Décollage*ko prozedimenduen barruan, hauxe da fotolitografia artistikoaren ar- loan gehien erabiltzen den tekniketako bat. Zentzu honetan, difuminatu-prozesu hori egin daiteke urratu bidez, bata bes- tearen gaineko kolore-geruza bidez, trata- mendu kimikoz edo irudia deskonposatuz lodiera desberdineko zona retikulatue- tan. Wolf Vostell eta Joe Tilson-ek, horien- gan *décollage*-ko fotolitografia bilakatzen baita praxi artistikoaren klabea, sintesi bat egiten dute difuminatu-metodo guzti horiekin. Berrogeitamarreko errealista berrien joera neodadaistek difuminatua sartu zuten garai hartako fotografia doku- mentaletan, lema bezala bizi-egoera bita- laren aurrean kontzientzi hartze sakona egiteko asmoa hartuz, eta horrela kolla- ge-teknika bat sortuz suntsitzailea eta kritikoa.

(Karin Thomas: *Dumont's kleines Sachwörterbuch zur Kunst des 20. Jahrhunderts* hiztegiaren itzulpena)